



AMIGOCARD

AMIGO CARD MEDPLAYA FIDELTASUN-PROGRAMAREN ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

1. SARRERA

Hurrengo baldintzek MED PLAYA MANAGEMENT S.L-ri dagokion Amigo Card Fidelotasun-programa arautzen dute

Jarraian zehaztutako baldintzek Amigo Card programaren funtzionamenduaren berri ematen digute eta edozein unetan kontsultatu ahal izango dira MedPlaya Hotelen web orrian, www.medplaya.com

Amigo Card fidelotasun-programak txartel identifikagarri bat du, Amigo Card txartela, zeinak titularra Amigo Card programaren kide gisa izendatzen duen. Amigo Card txartela MedPlayarena da.

Baldintza hauek onartuz, Amigo Card txartelaren Titularrak baldintzak ezagutzen dituela adierazten du eta, Amigo Card txartelaren titularra den bitartean aplikatuko dira.

Amigo Card fidelotasun programaren abantailak MedPlaya hotel guztiei aplikatuko zaizkie, Resort Giverola & Bella Vista Beach Club hotelei izan ezik. Ezingo dira trukatu puntuak Giverola/Bella Vista deskontuekin, zerbitzuekin edo opariekin. Establezimendu bakoitzak zehaztuko ditu Amigo Card programan sartuko diren zerbitzuak, eta establezimenduaren arabera, beste batzuk izan daitezke.

MedPlayak Amigo Card programaren baldintza hauek aldatzeko eskubidea erreserbatzen du.

2. AMIGO CARD PROGRAMAN IZENA EMATEA

Amigo Card Fidelotasun-programan 18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok eman dezake izena, izena emateko inprimakia betez eta ezarritako baldintzak onartuz. Pertsona juridikoak Amigo Card programatik kanpo geratzen dira.

Pertsona fisiko hau Amigo Card txartelaren Titularra izango da. Ez da pertsona bakoitzeko Amigo Card erregistro bat baino gehiago onartuko. Izen-emate 1 baino gehiago egiten bada, MedPlayak erregistro horiek baztertzeko eskubidea erreserbatzen du.

Amigo Card programan izena emateko ezarritako kanal ezberdinak erabil daitezke. Hauek dira Amigo Card fidelotasun-programan izena emateko eskuragarri dauden kanalak:

- www.medplaya.com web orrian, lineako izen-emate inprimakia datu pertsonalekin betez eta baldintzak onartuz. Lineako Amigo Card izen-emateek, ongi etorri gisa, automatikoki 20 puntu jasoko dituzte.
- MedPlaya hoteletan, formularioa beteaz, eta QR kode baten bitartez sartuz

Amigo Card programan izena ematea doakoa da. Amigo Card programan izena emateko beharrezkoa da posta elektronikoko bat izatea. Ez da erregistro bi edo gehiagorako posta elektronikoko bera onartuko.

3. AMIGO CARD TXARTELA

Amigo Card Txartelak Amigo Card fidelotasun-programan izena emanda dagoen pertsona titularra identifikatzen du. Amigo Card txartelean titularraren izen osoa eta MedPlayaren identifikazio-zenbakia ageri da (ID MedPlaya).

Amigo Card txartela formatu digitalean dago eskuragarri.

Behin Amigo Card programan izena emateko prozesua amaitu ondoren, Amigo Card txartelaren titularrak ongi etorri mezu elektronikoko bat jasoko du, Amigo Card txartel birtual bat atxikita.

Halaber, Amigo Card txartelaren titularra Amigo kontuan txartel birtualean sartu ahal izango da, deskargatzeko edo inprimatzeko kontrol panelean.

Amigo Card txartela pertsonala eta besterenezina da.

4. AMIGO CARD TXARTELAREN ABANTAILAK

Amigo Card txartelaren titularrak Amigo Card programaren abantaila guztiez gozatu ahal izango du, MedPlaya hotel guztietan. Hauek dira abantailak:

- a) Deskontu gehigarri bat zure erreserban, puntuak trukatzuz.
Gure web orritik www.medplaya.com, Bezeroaren Arreta-Zentrotik edo gure MedPlaya hoteletan egindako erreserbetarako, eta Hurrengo baldintzak beteaz:
 - 130 € edo gehiagoko erreserba guztiei aplikatuko zaizkie
 - Deskontuaren balioa ez da izango erreserbaren balioaren % 50 baino gehiago izango
 - Puntuak ezingo dira esku-diruarengatik aldatu
 - Bezeroa hotelean check-ina egiteko unean Amigo Card txartelaren titularra denean bakarrik aplikatu daiteke.

b) Trukatu zure puntuak MedPlaya hoteletako edozein doako zerbitzu edo oparirengatik.

Kontsultatu eskuragarri dauden zerbitzuak eta opariak hotelera iristen zarenean. Zerbitzu eta opari hauek hotelaren arabera ezberdinak izan daitezke.

c) Hotelera iristean Amigo Card birtuala erakutsiz bizkorrago erregistratu ahal izango zara.

d) Eskaintza eksklusiboak eta deskontu gehigarriak Amigo Card programan izena emandako bezeroentzat.

4.1 PUNTUAK

Amigo Card puntuak 0,5 €-ko balioa dute, puntuak fakturan deskontu bat eginez trukatu nahi badituzu. Balio hau puntuak fakturako deskontuarekin trukatzeko soilik izango da eta web orriaren bitartez www.medplaya.com, Bezeroaren Arreta-Zentroan edo gure MedPlaya hoteletan egindako erreserbei eta, ONURAK atalean xehatutako baldintzak beteaz bakarrik aplikatuko dira.

Amigo Puntuak ezin dira aplikatu www.medplaya.com webgunearen bitartez, Bezeroen Arreta Zentroaren bitartez edo MedPlaya hoteletan egindako % 100 itzuli ezin diren erreserbetan deskontu gisa.

Amigo Card programak barne hartzen dituen zerbitzuak eta opariak eta hauen puntuzko balioa MedPlaya hotel bakoitzean zehaztuko da. Amigo Card programan zehaztu gabeko zerbitzuak eta opariak programatik kanpo geratuko dira.

Puntuak ez dira Amigo Card titularren artean besterengarriak eta ezin dira diruarekin trukatu.

Amigo Card puntuak lorpen-datatik zenbatzen hasita 2 urteko balioa dute.

4.2 PUNTUAK LORTZEA

Erregistratzean, erakutsi Amigo Card txartel birtuala, zure egonaldiari dagozkion puntuak zure Amigo Card kontuari esleitzeko. Esleipen hau automatikoki egingo da hotelean izena ematean eta inoiz ez da zu hotelera iritsi aurretik egingo.

Amigo Card txartelaren titularrak honela lor ditzake puntuak:

a) MedPlaya hoteletako egonaldi bakoitzagatik.

Baldintza hau erreserbatzeko bide guztietan aplikatuko da. Hurrengo puntuak emango dira:

- o 1. eta 5. egonaldiaren artean: 20 Amigo Card puntu egonaldi bakoitzeko
- o 6. eta 10. egonaldiaren artean: 35 Amigo Card puntu egonaldi bakoitzeko
- o 11. eta 15. egonaldiaren artean: 50 Amigo Card puntu egonaldi bakoitzeko
- o 15 egonaldi baino gehiago: 60 Amigo Card puntu egonaldi bakoitzeko

MedPlaya hotel guztietan izandako egonaldiak zenbatzen dira eta Amigo Card fidelotasun-programan izena eman den datatik aurrera hasten da zenbatzen.

Bezero baten ondoz ondoko bi erreserba ez dira egonaldi berri bezala hartuko, beraz, ez du egonaldi berriagatik punturik lortuko.

b) Beste bide batzuetatik egindako erreserbetarako:

i. www.medplaya.com

ii. MedPlaya Bezeroaren Arreta-Zentroa

iii. MedPlaya Hotelak.

Hotelean erregistratzean, erreserbaren zenbateko osoaren %8ren baliokidea Amigo Card puntutan emango da. Zure erreserbarekin lotutako aparteko zerbitzuak baldintza honetatik kanpo geratzen dira.

Beste bide batzuetatik egindako erreserbak baldintza honetatik kanpo geratzen dira (b).

Amigo Card txartelaren titularrak, aldi berean, egonaldiagatik eta erreserbagatik puntuak lortuko ditu, arestian zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

4.3. PUNTUAK LORTZEKO BALDINTZAK

o Amigo Card txartelaren titularrak hainbat erreserba egin baditu, erregistratuta dagoen logelari dagokion zenbatekoak sortutako Amigo Card puntuak soilik lortuko ditu.

o Amigo Card txartelaren titularrak hainbat erreserbaren ordainketak egin arren, ez du puntu gehiago lortzeko eskubiderik izango.

o Logela batean Amigo Card programan erregistratutako bezero bat baino gehiago badaude, sortutako Amigo Card puntuak titular bakarrari emango zaizkio.

o Egonaldian zehar erreserba aldatuz gero, MedPlaya erreserban aldaketak egin aurretik egindako Amigo Card puntuen esleipena berrikusi eta aldatzeko eskubidea erreserbatzen du.

o Erreserbaren ordainketa egin duen pertsona edonor izanda ere, puntuak Amigo Card txartelaren titularrari esleituko zaizkio.



AMIGOCARD

5. AMIGO CARD PUNTUEN TRUKEA

Egonaldian zehar zure Amigo Card puntuak deskontuekin edota zerbitzuekin trukatu ahal izateko, ezinbestekoa da Amigo Card txartela (birtuala) harreraren edo Amigo Card programaren arduraduna den pertsonari erakustea.

a) PUNTUAK ZERBITZU EDO OPARIENGATIK TRUKATZEA

Puntuak zerbitzu edota opariengatik trukatzea harreraren edo Amigo Card programaren arduradunaren "Loyalty-Fidelidad & Community Manager" mostradorean eska dezakezu, zure Amigo Card txartela erakutsiz.

Harrerako langileak edo Amigo Card programaren arduradunak eskatutako opari edo zerbitzuaren bonu/txartel bat jaulkiko du eta, era berean, zure Amigo Card kontuari dagozkion puntuak abonatu dira. Amigo Card txartelaren titularrak bonua/txartela trukea egiteko zerbitzua eskaintzen duen sailari entregatuko dio.

Zure egonaldian zehar jaulkitako bonuak/txartelak egonaldia amaitzean iraungiko dira.

Kontsultatu, harreraren edo "Loyalty-Fidelidad & Community Manager" mostradorean, Amigo Card puntuengatik truka ditzakezun zerbitzuak eta opariak. Zerbitzu eta opari hauek hotelaren arabera ezberdinak izan daitezke.

Puntuak logelako zerbitzu gehigarriengatik trukatzea posible izango da, baldin eta Amigo Card txartelaren titularra logelan ostatu emanda badago.

b) PUNTUAK OSTATUKO DESKONTUENGATIK TRUKATZEA

Amigo Card txartelaren titularrak puntuak ostatuan deskontu bat izateagatik trukatu nahi baditu, hoteleko erregistroan bertan egin dezake.

Puntuak ostatuko deskontuengatik trukatzea www.medplaya.com eta MedPlaya Bezeroaren Arreta-Zentroaren bitartez edo gure MedPlaya hoteletan egindako erreserbetan bakarrik aplikatuko da. Deskontu hau ostatuari eta dietari dagozkion zenbatekoari aplikatuko zaio, zerbitzu osagarriak alde batera utziz.

Deskontua hurrengo baldintzak betetzen badira aplikatuko da:

- 130 € edo gehiagoko erreserba guztiei aplikatuko zaizkie
- Deskontuaren balioa ez da izango erreserbaren balioaren % 50 baino gehiago izango
- Puntuak ezingo dira esku-diruarengatik aldatu
- Bezeroa hotelean check-ina egiteko neuan Amigo Card txartelaren titularra denean bakarrik aplikatu daiteke.

Amigo Card puntu bakoitzak 0,5 €-ko balioa izango du, soilik puntuak ostatuan deskontu bat eginez trukatu nahi badituzu.

Beste bide batzuetatik edo gure web orriaren www.medplaya.com eta Bezeroaren Arreta-Zentroaren bitartez edo MedPlaya hoteletan egindako erreserbetan, itzul ezin daitekeen % 100 Ezeztapen Politikarekin, puntuak ezin dira ostatuko deskontu batekin trukatu.

Amigo Card txartelaren titularrak hainbat erreserba egin baditu, puntuak eta ostatuko deskontuaren arteko trukea Amigo Card txartelaren titularra erregistratu den logelan soilik aplikatu da.

Tasa eta zergeri dagokien zenbatekoa puntuen truketik salbuetsita geratzen da.

6. MEDPLAYA.COM – AMIGO CARD

Behin Amigo Card programan izena eman ondoren, titularra bere Amigo Card arlo pribatura sartu ahal izango da, www.medplaya.com helbidean. Horretarako, posta elektronikoren edo MedPlaya identifikazioaren (ID MedPlaya) eta pasahitzaren bidez identifikatu beharko du bere burua.

Amigo Card arlo pribatuaren bitartez hurrengo ekintzak egin ahal izango ditu:

- Deskargatu/Inprimatu Amigo Card txartela
- Amigo Card kontuko puntuen mugimendu zehatzak kontrolatu eta puntuen saldo erabilgarria ikusi.
- datu pertsonalak berrikusi eta eguneratu.
- erreserba historia ikusi eta erreserba berriak arinago egin.
- Amigo Card sarbide pribatuko ezarpenak aldatu.

www.medplaya.com helbidean Laguntza atal bat egongo da eta honen bitartez, edonoiz jar daiteke gurekin harremanetan, kontaktu inprimakia betez edo posta elektronikoz, contact@medplaya.com helbidean.



AMIGOCARD

7. AMIGO CARD EZEZTATZEA

Amigo Card programako partaidetza hurrengo arrazoiek eraginda ezeztatu daitezke:

- Erabiltzaileak edozein unetan eska dezake Amigo Card programako partaidetza ezeztatzea, contact@medplaya.com helbidera posta elektronikoko bidez bidaliz.
- Datu pertsonalen tratamendurako baimena baliogabetzeak AMIGO CARD programatik automatikoki baztertzea eragingo du.
- MedPlaya Management sailak Amigo Card txartelaren titularraren aldi baterako edo behin betiko ezeztatzearen eskubidea du, hurrengo kasuetan:
 1. Amigo Card txartela behar bezala erabiltzen ez bada.
 2. Programan erregistratzean onartutako zehaztapenak eta baldintzak betetzen ez badira.
 3. Hotelean behar ez bezalako jokoera izaten bada.
 4. Amigo Card programan izen ematean datu okerrak erabili direla hautematen bada.
 5. Amigo Card txartelaren titularraren heriotza gertatzen bada.
 6. Azken 5 urteetan erreserbarik edo Amigo Card kontuan puntu mugimendurik izan ez bada.

8. PRIBATUTASUN-GIDALERROAK

AMIGO CARD programan izena emateko eskakizuna betetzean. Erabiltzaileak onartzen du eta baimena ematen dio MED PLAYA MANAGEMENT, SL-ri MED PLAYA taldeko bezeroen fidelizazio-programaren helburuentzat emandako datu pertsonalak erabili eta tratatzeko, besteak beste, bezeroarekin merkataritza-harremana hobetzeko eta eskaintza pertsonalizatuak gauzatzeko.

Gainera, programa behar bezala gauzatzeko, zure datu pertsonalak MED PLAYA taldeko enpresei lagako zaizkie, arestian aipaturiko helburuekin.

Zuk emandako datu pertsonalak programaren zu erabiltzaile gisa identifikatzeko eta programan erregistratutako erabiltzaileen eskura dauden hainbat funtzio eta zerbitzura sarbidea emateko tratatuko dira.

Erabiltzaileak nahi duenean uko egin ahal izango dio bere datu pertsonalak erabiltzeko emandako baimenari honako helbide elektronikora idatziz: rgpd@medplaya.com. Hala ere, baimenari uko egiteak bezeroa AMIGO CARD programatik ateratzea eragingo du.

